

# Aurkezpena



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## 1. DBH-ko bigarren zikloan proposatutako hezkuntza materiala

Karpeta honetan, DBHko bigarren zikloko ikasleek gatazkei eta haien konponbideari buruz lan egiteko proposamenak auzetzen dira, curriculumeko hainbat arlotatik abiatuta. Prozedura berritzaileak oinarri hartuta jarrerak eta balioak lantzearen alde egiten duen materiala da; helburua da prozedura horien bidez, gatazkak sortzen direnean, jarduera solidario eta arduratsuetara bideratzea eta ikasteko era esanguratsuak ahalbidetzea.

Proposamen hau herritartasunaren gaia lantzen duen hezkuntza-proiektu zabalago baten zati da. Proiektuan hiru gai lantzen dira hiru ikasturtetan: eskubideak eta erantzukizunak; parte-hartze soziala; eta gatazkak maneiatu eta konpontzeko modu baketsuak. Ondoren, proiektuaren hirugarren urteari dagokion hezkuntza-materialaren zati bat aurkezten da; material honekin gatazkei aurre egiteko moduari buruz lan egin daiteke, lau ideia nagusi oinarri hartuta:

- Gure bizimoduan eta elkarbizitzan ezinbestean sortzen dira gatazkak. Ez dago bizitza sozialik gatazkarik gabe.
- Indarkeria ez da beti gatazkaren ondorioa, eta gatazka guztiek ez dute beti indarkeria eragiten.
- Herritar helduek gatazka elkarrizketarantz bideratzen dute.
- Gatazka aukera bat izan daiteke gatazkako alderdiak hazteko, betiere, bide bakezaleak kudeatzen badakigu.

Curriculum-arlo bakoitzerako jarduera batzuk proposatzen dira, gatazka era baketsuan aztertzeke eta ebazteke herritan gisa dagozkigun ardurak lantzeke. Ildo horretatik, **matematikan**, sentimenduek gatazka batean duten garrantzia azpimarratzen da, eta bitartekaritzarako teknika kuantitatiboen eta kualitatiboen balioa zalantzan jartzen da; **natur zientzietan**, gai polemiko bati buruzko iritzi desberdinetatik abiatuz, helburua desadostasunak elkarrizketaren bidez konpontzen saiatzea da; **plastika eta ikus-hezkuntzan**, hainbat adierazpen artistiko lantzen dira haiekiko egin diren interpretazio desberdinak positiboki baloratzeko, eta ez arazo-iturri gisa; **hizkuntza eta literaturan**, eztabaida edo elkarrizketa antolatzeke hainbat estrategia proposatzen dira, gatazkak konpontzean komunikazioak duen baloreaz jabetzeke; **ingelesean**, gatazka errealei buruzko azterketan eta arazoen zergatien eta aldean identifikazioan oinarrituz, eman daitezkeen irtenbideei buruz hitz egitea proposatzen da; **gizarte-zientzietan**, gatazka armatuei buruzko azterketa hartzen da abiapuntutzat, bake-lorpenen mapa egiteke; **musikan**, lan desberdinen analisisa eginez, musikak bake-mezuen igorle gisa duen funtzioaz hausnartzen da; **erlijioan**, bibliako gatazkak aztertzen dira, eta haiek tratatzeko bideak bilatzeko eskatzen da. DBHko lehen zikloan beste jarduera batzuk ere aurkezten dira **gorputz-hezkuntza** eta **etikarako**, eta horiek ziklo honetan aplika daitezke. Etikarako batxilergoko materiala ere kontsulta daiteke.



Material honekin lortu nahi diren **helburu orokorrak** hauek dira:

- Gatazkak konpontzeko komunikazioak eta elkarrizketak duten garrantziaz jabetzea.
- Ahozko eta idatzizko mezuak ulertzea eta egitea zuzentasunez, autonomiaz eta sormenaz, norberaren pentsamendua jakinarazteko eta antolatzeko erabiliz.
- Gatazka-egoerak elkarrizketarantz bideratzea.
- Iturri desberdinak erabiliz eskuratzea eta hautatzea informazioa, autonomoki eta kritikoki tratatzea eta modu ulergarrian antolatzea.
- Gizartearen funtzionamendua zuzentzen duten mekanismoak eta balioak aztertzea, bereziki, herritarren eskubideei eta erantzukizunei buruzkoak, eta haiekiko irizpideak eta jarrera pertsonalak hartzea.
- Taldekako ekintzetan jarrera solidarioarekin parte-hartzea, aurreiritziak gaindituz eta diskriminazio oro baztertuz.
- Aniztasuna aberastasun-iturritzat hartzea eta ez gatazka-sustatzaile gisa.
- Gatazkak ematen dituen ikasteko aukerak ulertzea eta ezagutzea.

## 2. Zikloko irakasle eta gurasoentzat lan-proposamena

Ziklo honetan gai hori lantzeko, interesgarria iruditzen zaigu irakasleek eta gurasoek gaiari buruz hausnartzeko materiala eta denbora edukitzea, baita helburu nagusiak ezartzeko eta ikastetxeko errealitatera egokitzeko ere.

Horretarako, bi dokumentu aurkezten dira orientazio gisa erabiltzeko. Lehen dokumentua '*Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara*' izenekoa da, eta hiru urteko iraupena izango duen proiektuaren aurkezpena egiten du. Guk proposatzen dugun herritartasunaren kontzeptua definitzen du, eta hezkuntza-estrategia batzuk zehazten dira.

Bigarrenean, '*Gatazkak modu baketsuan konpontzea*' izenekoan, dokumentu honetan aurkezten diren hezkuntza-materialen proposamenaren oinarrian dagoen filosofia aurkezten da, eta posterraren, bideoaren, ikastetxearen proposamenaren eta jolasaren bidez osatzen dira, baita ALBOANen aholkularitza eta trebakuntzaren bidez ere.



Dokumentu horiek irakasleek eta gurasoek trebakuntza-saio batzuk egiteko oinarri gisa erabil daitezke. Saio horietan, ikuspuntuak partekatu, lanaren lehentasunak ezarri –testuinguru espezifikoaren arabera– eta proposamenak osatuko dituzte.

Ondoren, hiru trebakuntza-saiotarako proposamena aurkezten dugu, gaia klaustroan, taldean edo gurasoekin jorratzeko.

#### 1. saioa:

Aurrez 'Munduko hiritarrok. Gure munduko protagonistak gara' dokumentua banatuko da.

1. Dinamika taldeka: *scrabble* jokoa herritartasun hitzari buruz.
  - a. Agertzen diren hitzak bateratzea.
  - b. Lehentasunaren arabera ordenatzea.
2. Herritartasunaren dokumentuari buruzko galdera hauek egitea.
  - Dokumentua azaltzea edo haren gaineko iruzkinak egitea.
  - Zer iradokitzen dizu herritartasunaren gaiak?
  - Gaiaren diagnostikoa:
    - Ikasgela, ikastetxea, irakasleak, gizartea.
  - Zer zerikusi du zure heziketa-lanarekin?
  - Gai horri buruz ezagutzen dituzun proposamenak eta ekimenak.
  - Zure heziketa-lanean beharrezkoak edo iradokitzaileak diren proposamen zehatzak bi alderdi hauei buruz:
    - Gaiak.
    - Metodologia.
3. Talde-lana eta bateratze-lana.



## 2. saioa:

1. Aurreko saioan azaldutakoa kontuan hartuz, herritartasunari buruzko diagnostikoa egingo da taldeka, ikastetxean eta ikasgelan oinarrituz.
2. Bateratze-lana eta adostea.
3. Ikastaro honetako gaiaren aurkezpena: gatazkak konpontzea.

“Gatazkak modu baketsuan konpontzea” dokumentua eta galderak edo iradokizunak banatuko dira.

### Dokumentua lantzeko galderak

#### Gure eskolei dagokienez...

- Beste elementuren bat sartuko zenuke egoeraren diagnostikoan? Beste ezaugarririk ikusten duzu zure ingurunean? Diagnostiko horrek zenbaterainoko balio duela uste duzu zure ikasleen artean?
- Zer egoeratan sortzen dira gatazkak ikasgelan? Nola lor daitezke aurretiko beharrezko baldintzak gatazkak konpontzeko? Nola susta daitezke jarrera edo komunikazio-gaitasun jakin batzuk ikasleen artean?
- Ikasleekin hitz egiten duzunean, gatazkak modu baketsuan konpontzeko eta elkarrizketarantz bideratzeko, zer argumentu erabiltzen dituzu? Zer tresna edo estrategia erabiltzen dituzu? Nola ikusten duzu zure burua familian, ikastetxean, herrian, munduan... gatazkak konpontzeari dagokio-

nez?

#### Gure buruari begira...

Gatazkak konpontzeko jarrera baketsuak garatu behar direla jabetzean, garrantzi handia hartzen dute erabiltzen ditugun mekanismoek, estrategiek eta bide baketsuek beste pertsona batzuekiko sortzen diren gatazkak konpontzeko.

- Nire ustez, zer erantzukizun ditut heziketa-lanean gatazkak konpontzeari dagokionez? Zein daude nire ‘laneko’ erantzukizunetatik harantzago?
- Heziketa-komunitate bateko partaide gisa:
  - Zein dira, nire ustez, sustatu behar ditugun balioak eta jarrerak?
  - Nola bultzatu daitezke bake-prozesuak?
  - Nork du horren erantzukizuna?



### 3. saioa:

1. Taldeka, galderak bateratu eta ikastetxearen edo hezkuntza-zikloaren diagnostikoa egingo da.
2. Bateratze-lana.
3. Ikastetxeko helburu nagusiak zehaztea gaia tratatu eta erabili beharreko materiala aurkezteko.
4. Gatazkak modu baketsuan konpontzeko sekuentzialki, progresiboki eta koherentziaz lan egiteko, ikastetxeko posterrak erabiliz, ALBOANek poster horiek kokatzeko ordena logiko hau proposatzen du:
  - Gatazkekin bizi gara.
  - Behar eta interes desberdinak daudelako sortzen dira gatazkak.
  - Biolentzia ez da hartu beharreko bidea.
  - Gatazka aukera bat da honetarako...
  - Gatazkak konpontzen ikasi behar da.
  - Gatazkak ikusi eta konpontzeko nahia eduki behar da.
  - Beharrezko jarrera batzuk hauek dira:
    - entzutea,
    - enpatia,
    - uko egitea,
    - bestea onartzea,
    - asertibitatea,
    - adostea,
    - harreman berriak eraikitzea,
  - Gatazkak hainbat modutan konpon ditzakegu: autogestioa, negoziazioa, arbitrajea eta bitartekotza.
  - Ondo konpondutako gatazkak aukera berriak ematen dizkigu.
  - Gatazkak konpontzeko gure jarraibideak.



### 3. Informazio gehiago lortzeko

Ondoren, web orrien zerrenda bat agertzen da informazioa zabaltzen laguntzeko eta gaiarekin lotutako beste baliabide interesgarri batzuetara iristen laguntzeko.

#### Dokumentazioa

<http://www.aufop.org/publica/reifp/>

IRAKASLEEN TREBAKUNTZARAKO UNIBERTSITATEEN ARTEKO ALDIZKARI ELEKTRONIKOA.

<http://lacolina.lasalle.org.ve/attach/153/default/APORTESEDELAMEDIACI%C3%93N.rtf>

GATAZKAK KONPONTZEARI ETA ESKOLA-BITARTEKOTZARI BURUZKO ARTIKULUA.

<http://www.ilo.org/public/spanish/dialogue/themes/>

GATAZKAK SAIHESTEARI ETA KONPONTZEARI BURUZKO DOKUMENTUAK.

<http://www.rds.org.co/2002/centro-mundial/>

GATAZKAK IKERTZEKO ETA KONPONTZEKO ZENTROA.

<http://www.unesco.cl/pdf/actyeven/ppe/boletin/artesp/33-9.pdf>

KULTUR ANITZEKO HEZKUNTZARI ETA GATAZKEN AZTERKETEI BURUZKO ARTIKULUA.

<http://www.colegiomediacion.com/>

BITARTEKOTZA PROFESIONALAREN ELKARGOA. GATAZKAK KONPONTZEKO ALTERNATIBEI BURUZKO ARTIKULUAK ETA DOKUMENTUAK.

<http://www.crea.uct.cl/revista.php>

GATAZKAK KONPONTZEKO SISTEMA ALTERNATIBOEN ETA HAIEN EMAITZEN HEDAPENAREN IKERKETARI BURUZKO ALDIZKARIA.

<http://www.redoc.org/>

BAKERAKO PEDAGOGIARI BURUZKO DOKUMENTUEN WEB ORRIA.



### Estekak

[http://europa.eu.int/comm/justice\\_home/ejn/adr/adr\\_ec\\_es.htm](http://europa.eu.int/comm/justice_home/ejn/adr/adr_ec_es.htm)

GATAZKAK KONPONTZEKO ALTERNATIBEN MODALITATEAK.

[http://centros5.pntic.mec.es/cpr.de.aviles/asesorias/diversidad/Accion\\_Tutorial\\_Mediacion.htm](http://centros5.pntic.mec.es/cpr.de.aviles/asesorias/diversidad/Accion_Tutorial_Mediacion.htm)

AVILESEKO IRAKASLE ETA BALIABIDEEN ZENTROA, MATERIAL ETA ESPERIENTZIETARAKO ESTEKEKIN.

<http://intercentros.cult.gva.es/cefire/46401840/diversificacio/>

ESKOLAKO GATAZKAK KUDEATZEKO BALIABIDEETARAKO ESTEKAK. GENERALITAT VALENCIANA.

### Hezkuntza-esperientziak eta -baliabideak

<http://www.culturadepaz.info/home.php>

BALIABIDE INFORMATIBOAK HEZKUNTZARAKO ETA BAKEAREN ALDEKO ETA GATAZKAK KONPONTZEKO EKINTZETARAKO.

<http://www.fundacioperlapau.org/castella/>

BAKE-HEZKUNTZARAKO EKINTZAK, ARGITALPENAK ETA KANPAINAK.

<http://www.aprenderaconvivir.org/programa.html>

BIZIKIDETZA OSASUNSUAGOA, ERRESPETAGARRIAGO, SOLIDARIOAGOA ETA DEMOKRATIKOAGOA ERAIKITZEKO BALIABIDEAK ESKAINTZEN DITUEN UDALEKO HEZKUNTZA-PROGRAMA.

<http://www.mediacioneducativa.com.ar/index.htm>

HEZKUNTZA-BITARTEKOTZAREN JAKINTZA-ALORREN ARTEKO TALDEA. HEZKUNTZARI BURUZKO WEB-A BITARTEKOTZARI BURUZKO ESTEKEKIN, HEZKUNTZAKO ESPERIENTZIEKIN ETA BIBLIOGRAFIAREKIN.

[http://www.concejoeducativo.org/alternat/conf\\_res.htm](http://www.concejoeducativo.org/alternat/conf_res.htm)

IKASTETXEETAKO GATAZKEI ETA BIZIKIDETZARI BURUZKO HAUSNARKETAK ETA ONDORIOAK.





# Matematika



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Gatazkak neurtzeko tresna bat egiteko irudimena eta sormena garatzea.
- Neurtzeko teknika kuantitatibo eta kualitatiboen balioztatzea.
- Gatazka bat konpontzeko sentimenduek duten eragina eta garrantzia ulertzea.
- Hainbat informazio-iturritako datuak biltzea eta taula bidez erregistratzea.
- Datuak lantzea eta konparazioak egiteko moduan aurkeztea.
- Gai polemiko baten inguruan ikertzea, hainbat informazio-iturri erabiliz.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Problematograma<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Eskatu ikasle bakoitzari arazoak identifikatzeko eta arazoekin lotura estuagoa duten sentimenduen indarra adierazteko gai den tresna modu sortzailean egiteko. Tresnak problematograma izena izango du. Arazoen muinean dauden gatazkak zehazten lagunduko digu.

Problematograma diseinatu ondoren, talde txikiak antolatu horiek azaltzeko eta gatazka-egoera errealetan edo sor daitezkeen gatazka-egoeretan aplikatzen saiatzeko. Arazoa aztertu, horri lotutako sentimenduak hautatu eta horiei 1-10 bitarteko intentsitatea esleitu. Arazoaren balorazioa egin taldean, sentimendu-kopuruaren eta horien intentsitatearen araber. Amaitzeko, hausnarketa bideratuko duten hainbat galderari erantzun (1.1. fitxa).

**Materiala:** 1.1. fitxa.

**Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat.

**Iradokizuna:** Euskal egoera lantzeko problematograma erabiltzea proposa daiteke.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokituz: Zenbait egile (2003). *Habilidades para la vida. Una propuesta educativa para convivir mejor.* Fe y Alegría: Bogota (Kolonbia).



## 2 Jarduera: Zientzia eta gizartea gatazkan

**Deskribapena:** Elikagai transgenikoei buruz Europako Batasunaren azken berria kontuan hartuta, munduan elikagai transgenikoen ekoizpenari eta kontsumoari buruz ikertzeko proposatu ikasleei, konparazio-taulak egin eta emaitzak aurkez ditzaten, betiere elikagai transgenikoek biologikoen aldean eragiten dituzten arazoak kontuan izanik (2.2. fitxa).

**Materiala:** 2.1. eta 2.2. fitxak, Internet eta bestelako informazio-iturriak.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

**Iradokizuna:** Natur Zientzietan gai berari buruzko jarduera bat proposatzen da; hortaz, bien artean loturak egitea interesgarria izan daiteke.

## 1.1. Fitxa

### Problematogramari buruzko hausnarketa egiteko

- Guztia neur daitekeela uste duzue?
- Zer iruditzen zaizkizue neurketa-teknika kuantitatiboak? Eta kualitatiboak?
- Nola jakin dezakegu, sentimenduen bidez, arazo baten gatazken oinarria zein den?
- Zertan laguntzen du eragiketa honek arazoa eta gatazka hobeto neurtzen?



## 2.1. Fitxa

### EUROPA ELIKAGAI TRANSGENIKOETARA HURBILTZEN ARI DA

Genetikoki aldatutako elikabaien ekoizleek produktuak etiketatu egin behar dituzte, bezeroari produktuari buruzko informazioa emateko, Europako Parlamentuak onartu zuen legearen ondorioz.

Legea –Europako Batasuneko estatu kideek onartu behar dute oraindik– Europako Elkartean elikagai transgenikoak saltzeko debekua kentzeko lehen urratsa izan daiteke.

Frantziak eta Europako Batasuneko beste herrialde batzuek 1999an indarrean jarri zen debekua kentzeko aurrebaldintza gisa aipatu dute etiketatzea.

AEBek eta elikagai transgenikoak ekoizten dituzten beste herrialde batzuek –Latinoamerikako hainbat herrialde, besteak beste– hasiera-hasieratik baztertu dute lege hori.

Lehenengo hilean, talde horrek bere kasua aurkeztu zuen Munduko Merkataritza Erakundearen, debekua kendin eskatzeko, bidegabeko merkataritza-hesia dela uste baitute.

Hala ere, Europak neurria aldatu arren, baliteke Washingtonek Munduko Merkataritza Erakundearen gaitzesten segitzea, herrialde horrek etiketatzea bidegabekoa dela uste baitu, bere iritziz etiketak kontsumitzaileei atzera eragiten baitie.

#### Bezeroa

Europako Parlamentuan David Byrne Kontsumitzailea Babesteko Gaietarako mandatariak adierazi zuen: “Debekua kentzeko unean gaude”.

“Nire iritziz, kontsumitzaileek elikagai transgenikoak erosi nahi dituzten edo ez hautatzeko aukera eman-go dien beste lege bat onartu dugu”, adierazi zuen Byrnek.

Lege berriaren arabera, “Produktu hau elikagai transgenikoekin eginga dago” etiketa izan behar dute genetikoki eraldatutako elikagaia %0,9 baino gehiago duten produktuek.

Eztabaidan, batzuen iritziz, elikagai-mota horien %0,5 duten produktuei etiketa aplikatu behar zaie. Proposamenak, ordea, ez zuen aurrera egin.

Elikagai transgenikoen kontra dauden taldeek eskatu dute debekua ez kentzeko eta Europak ez die zaiola men egin AEBetako presioari.

Elikagai horiek onartzen dituzten taldeek uste dute Europak onura ekonomiko eta zientifikoak galduko lituzkeela, debekua zabalduz gero.


BBC. Mundo.com

Asteazkena, 2003ko uztailearen 2a.



## 2.2. Fitxa

- 1 Badakizue zer diren elikagai transgenikoak?  
Zer dela eta eragiten dituzte eztabaidak eta gatazkak?
- 2 Ikerketa-lana
  - Zenbat elikagai transgeniko kontsumitzen da Europan?
  - Zenbat ekoizten da?
  - Zein da produktu transgenikoen ekoizpenaren eta biologikoen ekoizpenaren arteko ratioa?  
Eta elikagai transgenikoen eta biologikoen ratioa biztanleko?
- 3 Datu horiek guztiak bildutakoan, egin konparaziozko taulak emaitzak aurkezteko.
- 4 Zer iritzi duzue elikagai transgenikoei buruz?  
Zuen ustez, nola konpon daiteke arazoa?



# *Natur zientziak*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Elkarrekin alderatzea bi ingurune edo gizarte ezberdinen (Iparra/Hegoa) energia-premiak.
- Energia-plan proiektu bat egitea populazio jakin baten arazoak konpontzeko.
- Aintzat hartzea energiak eguneroko zereginetan duen garrantzia, baita bizi-kalitatean eta garapen ekonomikoan duen eragina ere.
- Elkarrekin konparatzea gai eztabaidatsu bati buruzko zenbait iritzi (elikagai transgenikoei buruzkoak, adibidez).
- Elkarrizketarantz bideratzea desadostasunak edo jarrera kontrajarriak.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Khandiako energia-gatazka<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Indiako Khandia herriko energia-aurkeztu ikasleei. Herri horren eta ikasleak bizi direnaren energia-premiak elkarrekin alderatu behar dituzte. Era berean, gatazka gainditzeko egon daitezkeen alternatibei buruz hausnarketa egitera bultzatu behar dira ikasleak. Azkenik, herrian energia-plan bat martxan jartzeko proiektua eratu behar dute, taldeka, moderatzaile eta guzti.

**Materiala:** 1.1. fitxa.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

### 2 Jarduera: Elikagai transgenikoak

**Deskribapena:** Elikagai transgenikoei buruzko bi testu –iritzi kontrajarrikoak– irakurri behar dituzte ikasleek. Irakurketa amaitutakoan, gai horri buruz gehiago ikertu eta aldeko zein aurkako iritzia eman behar dute. Ondoren, taldeka elkartu behar dute, elikagai transgenikoen aldeko edo aurkako –taldearen jarrera zein den– argudioak lantzeko. Azkenik, eztabaida egin behar da ikasgelan, moderatzaile eta guzti.

**Materiala:** 2.1. eta 2.2. fitxak.

**Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

**Iradokizuna:** Matematikaren alorrean ere egin behar da gai horri buruzko jarduera bat; komeni da, beraz, biak elkarrekin lotzea.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: IEPS (1996). *Ciencia multicultural y no racista. Enfoques y estrategias para el aula*. Narcea, S.A. argit.: Madril.



## 1.1. Fitxa

### KHANDIAKO ENERGIA-GATAZKA

Indiako 560.000 herrietako bat da Khandía, miseriaren muga-mugan dagoena. Ipar-mendebaldean dago herria, barrualdeko eskualde batean. Bederatzehun lagun bizi dira Khandian. Bizibide nagusiak: nekazaritza (arroza, garia, kotoia...) eta abere batzuk (bufaloak, behiak, ardiak eta ahuntzak).

Energia-baliabiderik eza dute herri hauek arazorik nagusietakoa. Ez da handia izaten energia-eskaria; hala ere, batere energiarik gabe ez dago bizitzerik.

Herri askotan, egurra da energia-iturri nagusia. Basoak, ordea, desagertzen ari dira, hainbeste egur moztearen poderioz, eta ingurumena ari da horren ondorioak pairatzen. Nahiko txikia da herri horien energia-eskaria. Elektrifikazioa, berriz, oso garestia litzateke; ez du merezi.

### Khandiako energia-premiak:

- Jana prestatzea.
- Argia (25 kw aski dira herri osorako).
- Soroak ureztatzea (lau ur-ponpa behar dira; horietako bakoitzak 5 kw kontsumitzen du).
- Aisialdia (telebista, irratia...) eta hezkuntza (0,5 kw komunitatearen zentrorako).
- Osasuna (ur-araztegia, hozkailua...).

1. Herri horretako energia-premiak oinarri-oinarrizkoak dira. Zureak ere oinarri-oinarrizkoak dira? Nolakoa da energia-kontsumoa gure gizartean?
2. Zer alternatiba bururatzen zaizkizue Khandiako energia-gabeziak gainditzeko? Hona hemen alternatiba batzuk.

### Erabil daitezkeen energiak:

- **Biogasa:** Materia organikoaren deskonposizioak gasa sortzen du (metanoa gehienbat). Simaurrak edo nekazaritzako beste hondakin batzuek sortzen dute biogasa. (1 cm<sup>3</sup> biogasek 1,25 kw energia sortzen du, egunean hamar lagunentzako janaria prestatzeko adina).
- **Biomasa erregai gisara:** Egurra eta beste zenbait landare dira erregaiak. 25 kw-eko sorgailua martxan jartzeko, honako egur-kantitatea behar da: 50 kg egunean. Urtean, hektarea bat baso (hazkunde azkarreko zuhaitzak).
- **Eguzki-energia:** Eguzki-zelula fotovoltaikoek elektrizitatea sortzen dute. Sistema hau, ordea, garestia da. Gainera, 1 kw besterik ez du sortzen.






3. Zein da energia-baliabide egokiena, Khandiako energia-premiak ikusirik eta gogoan izanik Panchayat-ak (herri-batzarrak) erabaki duela energia-sistema jasangarria jartzea? Egin ezazue proiektu bat energia-plan hori herrixkan aplikatzeko. Horretarako, kontuan izan:

#### Adituen iritzia:

Adituek diote biogas-instalazioa dela egokiena. Egunean 85 cm<sup>3</sup> gas sortuko lituzke instalazioak. Horrez gain, ongarritarako erabiltzen den hondakin organikoa sortzen du. Nekazaritzako ekoizpena handitu egingen da eta, aldi berean, ez dago moztu beharrik hainbat eta hainbat hektarea baso. Sorgailua ibilarazteko energia-gastua (egurra edo fuela) txikia da.

4. Zenbat kw sortuko ditu gas-kantitate honek sorgailuan erabiliz gero? Aseko ditu herriaren energia-premiak?
5. Hau da hango adituen plana. Bat dator zuen energia-planarekin? Harritu zaituzte adituen gomendioaren batek? Zuen ustez, zer arazo sor daitezke instalazioa martxan jartzen denean? Zer eragin izan dezake Khandiako herritarrengan energia sortzeko era horrek?
6. Eztabaidaren ondoren:
- Nolakoa izan da gaiari buruzko eztabaida?
  - Zer zailtasun izan dituzue?
  - Moderatzailea edukitzeak zertan lagundu dizue?
  - Zuen iritziz, komeni da gatazka batzuetan kanpoko bitartekaria erabiltzea? Zer egoeratan komeni da bitartekaritza?
  - Adostasunen batera edo elkarren antzeko ikuspunturen batera iritsi zarete?



## 2.1. Fitxa

### ELIKADURA ETA BIOTEKNOLOGIA

#### ELIKAGAI TRANSGENIKOAK

Elikagai transgenikoak deritzenen aurkako kanpainak areagotu egin dituzte azkenaldi honetan zenbait talde ekologistek. Argudio berberak erabiltzen dituzte denek: elikagai horiek jatea arriskutsua da, ingurumenari kalte egiten diote, eta bakar-bakarrik ekoizten dituzten multinazionalak dakarkie onura. Egia da hori guztia? Lehenik eta behin, azal dezagun zer diren elikagai transgenikoak: produktu bioteknologikoak dira, ingeniari-tza genetikoaren bitartez eginak. (...)

Seguruak dira osasunerako? Irizpide zientifikoei bagagozkie, supermerkatuko beste edozein jaki bezain seguruak dira edo seguruagoak. Teknologia genetikoari esker, hobeto dakizkigu patata transgeniko batean gertatzen diren aldaketak ohiko hobekuntza-sistemen bidez lortzen direnak baino. Horrez gain, patata transgenikoak azterketa zorrotzak gainditu behar izaten ditu merkaturatu aurretik, elikagaiaren osaera zehazteko eta toxikotasunik ez duela ziurtatzeko. Salduko bada, nahitaez gainditu behar ditu azterketa horiek elikagai transgenikoak. Ez dira, bestalde, errutinazko edo azaleko analisiak izaten. (...) Transgenikoen kontrol zorrotz horri kontrajarririk, berriz, ohiko sistemez ekoizten diren 'betiko' jakiei ez zaizkie egiten proba horiek. Hala eta guztiz ere, inor gutxi kezkatzen da horregatik, nahiz eta ez jakin 'betiko' jakien zenbat ezaugarri aldatu dituzten. Kontsumitzaile garen aldetik, elikagai guztien kontrol-maila berbera eskatzen dugu, transgenikoak izan edo ez.

Naturarentzat arriskutsuak dira transgenikoak? Baietz diote elikagai horien aurkakoek, batez ere begetal transgenikoen kontrakoek. Batetik –diote–, aldatutako genea barietate transgenikotik espezie basatietera igaro daiteke, eta horrek oreka ekologikoa hautsi egin dezake. Igarotze edo transferentzia horiek naturan bertan ere gertatzen dira, oso-oso gutxitan bada ere. Horregatik, ezinbestekoa da espezie transgenikoen kontrola. Baina kontrol hori egin egiten da: ingurunera landare transgenikoak jaregin aurretik eskaera egin behar izaten da eta aditu-talde batek egiten du haren jarraipena. Bestalde, zenbait talde ekologistak dio landare-barietate transgenikoak erabiltzeak arriskuan jartzen duela biodibertsitatea. Alabaina, historiari erreparatuz gero ikusten da elikagaien biodibertsitatearen aurkako eraso handienak eguneroko jardunearan egiten ditugula kontsumitzaileok.

(...)

Transgenikoak ekoizten dituzten konpainiek irabaziak lortzea dute helburu, jakina. Enpresa horietako batzuek ziotenez, transgenikoek desagerraraziko dute gosea mundu osotik. Publizitate-kanpaina zinez eskasa izan zen hori, bistakoa baita ingeniari-tza genetikorik gabe ere badagoela goseari aurre egitea (jaki-soberakinak hobeto banatuz, adibidez). Beste muturrean, transgenikoen aurkakoek diote enpresa multinazional bakan batzuen esku izango direla hazi transgenikoak eta horrek monopolio-arriskua ekar dezakeela. Badakizu zenbat enpresaren esku dagoen hazi ez-transgenikoen salmenta? I+Gean (Ikerkuntzan + Garapenean) inbertitzeko ahalmena eta ausardia izan duten enpresa berberen esku. Automobilgintzan bezala, bi dozena enpresak dihardu horretan, ez gehiagok. Laburbilduz, ondorio ekonomiko aipagarriak –eta aurretik iragartzerik ez dagoenak, nolabait– dituzte transgenikoek, beste edozein teknologiaren garapenak bezala. Hausnarketa hau amaitu aurretik, ordea, gogoratu behar du kontsumitzaileak transgeniko guztien garapena ez dela laborategi pribatuetan egiten. Badira arlo horretan ikerketa egiten duten erakunde publikoak ere, finantziario publikoak lagundurik.

Erakunde publikoetan transgenikoak ikertzen ari garenok garbi dakusagu bi talderen arteko enfrontamendua: multinazionalen eta ekologisten artekoa. Funtzionario publiko garen aldetik, azaldu beharra daukagu kontsumitzaileei (gure soldata ordaintzen dutenei, alegia), zertan den zientziaren egoera, beren kasako hausnarketa egin dezaten. Espainian, baina, errazagoa da esaten egiten baino. Izan ere, zerk izaten du oihartzun handiagoa: produktu jakin baten aurkako kanpainak, edo ongi arrazoitutako irizpide zientifikoak?

**Daniel Ramón Vidal**, CSICeko Elikagaien Zientzia eta Teknologia alorreko koordinatzaile nazionala.

**EL PAÍS**en argitaratua, 1997ko abenduaren 20an, larunbata.



**GENETIKA ETA ELIKAGAIK****HOBE PREBENTZIOA SENDATZEA BAINO**

(...)

Testu hau Ramón Vidalen artikuluari erantzuna da, batetik: gure iritziz, zehaztasun zientifikorik gabeko hainbat baieztapen eta hutsune daude artikuluko horretan. Bestetik, manipulazio genetikoaren egindako elikagaiak inondik ere ez direla seguruak uste duen jende askoren (zientzialariak, kontsumitzaileak, ekologistak, sindikalistak, nekazariak...) usteak eta argudioak ere biltzen ditu testu honek.

Hona zer diren manipulazio genetiko bidez lortutako elikagaiak (transgenikoak edo errekonbinanteak): ingeniariaritzaren bitartez beste espezie batzuen geneak sartu zaizkien organismoetatik datozenak. Jan behar dugun landarean edo animalian kanpoko geneak sartzeko, ingeniariaritzaren aldaketa-bektorea deritzon tresna erabili behar da: "parasito genetikoak" (plasmidoak eta birusak, besteak beste), sarritan tumoreak eta bestelako gaitzak (sarkomak, leuzemiak...) eragiten dituztenak. Normalean, bektore horiei kendu egiten zaizkie laborategian propietate patogenoak. Baina bektore "elbarritu" horiek gaitasun handia dute berriro aktibatzen eta patogeno berriak sortzeko. Horrez gain, askotan, bektore horiek gene markatzaileak izaten dituzte, erresistentzia ematen dietenak zenbait antibiotikorekiko (Novartisen tomate transgenikoan dagoen kanamizina izeneko genearekiko, adibidez). Erresistentziak, bestalde, gure hesteetako, uretako, lurreko eta abarretako bakterio-populazioetara ere hedatzen dira batzuetan. Ez da inongo gehiegikeria esatea arriskugarria dela osasun publikoarentzat antibiotikorekiko erresistenteak diren bakterio patogenoen anduiak ugaltzea. Osasunerako Mundu Erakundeak behin eta berriro ohartarazten du horren arriskuaz.

Geneak manipulatzeko tresna izugarri ahaltua da ingeniariaritzaren genetikoak. Gaur egun, ordea, apenas ezer dakigun manipulatu behar den animalia edo landarearen funtzionamendu genetikoaz. Zer gene aktibatzen edo desaktibatzen dira organismoaren bizi-zikloan? Nola eta zergatik aktibatzen edo desaktibatzen dira? Zer eragin dauka sartu dugun gene berriak gainerako genomaren funtzionamenduan? Zer aldaketa eragiten ditu bere inguruan landare transgenikoaren geneak pizteak edo itzaltzeak? Galdera hauetatik gehienek ez daukate erantzunik oraindik. Manipulatutako organismoaren genomaren gene berriak sartzeko aurreikusierak ez dagoen aldaketak eragiten ditu haren funtzionamendu genetikoan eta metabolismo zelularrean. Hona horren ondorioetako batzuk: a) kontsumitzaileei prozesu alergikoak eragiten dizkieten proteina arrotzak sortzen dira (Pioneer-en soja transgenikoari buruz eginiko ikerketek frogatu zutenenez, erreakzio alergikoak eragiten ditu landare horrek; ez, ordea, manipulatu gabeko sojak); b) substantzia toxikoak sortzen dira, manipulatu gabeko elikagaien ez bezala (AEBetan, 27 lagun hil eta 1.500etik gora gaixotu ziren triptofano aminoazidoa (genetikoki aldatutako bakterio batek sortua) irensteagatik, eta, c) aldatu egiten dira elikagaien propietate nutritiboak (azukreen, gantzen, proteinen, bitaminen... proportzioak).

Ingurumenerako arriskuak, berriz, osasunerakoak baino are kezagarriagoak dira. Laborantza transgenikoaren hedapenak arriskuan jartzen du biodibertsitatea, areagotu egiten ditu higadura eta poluzio genetikoak, eta, azkenik, herbiziden erabilera sustatzen du. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen (OECD) txosten batek dioenez, azken urteetan laborantza transgenikoetan egin diren esperimenteren %66k hauxe zuten helburua: herbizidekiko erresistenteak diren landareak sortzea.

(...)

**Gregorio Álvaro Campos**, bioteknologoa, UCMko Biokimika eta Biologia Molekular Saileko irakaslea eta Aedenat-eko kidea.

**Jorge Riechmann**, politologoa, Bartzelonako Unibertsitateko irakaslea eta CCOOko Konfederazioko Ingurumen Ataleko kidea.

**EL PAÍS**en argitaratua, 1998ko otsailaren 4an, asteazkena.



## 2.2. Fitxa

### Eztabaidari ekin aurretik

1. Bistakoa da elikagai transgenikoek iritzi kontrajarriak sortzen dituztela eta eztabaidari atea zabalik uzten diotela. Bi testuak irakurri ondoren, zer iritzi duzu gai honetaz?
2. Orri asko idatzi dira transgenikoen gaiaz. Gehiago iker ezazu, elikagai horiei buruz duzun iritzia ongi zehazteko.

#### **Zenbait web orri:**

<http://www.saludmania.com/noticia/4/34/6430>

<http://www.aula21.net/Nutriweb/transgenicos.htm#Noticias>

3. Elkar zaitezte jarrera bereko bost laguneko taldeetan. Zuen iritziaren argudio sendogarriak prestatu, gero eztabaidan haren alde egiteko.

### Eztabaidaren ondoren

- Nolakoa izan da gaiari buruzko eztabaida?
- Zer zailtasun izan dituzue?
- Moderatzailea edukitzeak zertan lagundu dizue?
- Zuen iritzi, komeni da gatazka batzuetan kanpoko bitartekaria erabiltzea?  
Zer egoeratan komeni da bitartekaritza?
- Adostasunen batera, edo elkarren antzeko ikuspunturen batera iritsi zarete?



# *Plastika eta ikus-hezkuntza*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Abstrakzio grafiko edo artelan baten esanahia interpretatzea, hark eragiten dituen emozioak eta sentipenak kontuan hartuta.
- Iritzi-aniztasuna onartzea eta positibotzat jotzea, hau da, aberasgarritzat hartzea, ez gatazka-iturritzat.
- Arteaz gozatzea, eskulturak, pinturak edo arkitektura-lanak ikusiz.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Orbana paperean

**Deskribapena:** Tinta-orban bat egin paper-orri batean. Orban horren interpretazioa (zer "ikusten" den) egin behar dute ikasle guztiak, eta taldean azaldu. Azkenik, interpretazio guztiak bildu behar dira, gertakari berberaz zenbat interpretazio ezberdin sortzen diren aztertzeko.

**Materiala:** Tinta, papera eta 1.1. fitxa.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 30 minutu.



## 2 Jarduera: Artea deszifratzen

**Deskribapena:** Irakasleak hainbat artelan hautatu behar ditu (eskulturak, pinturak, arkitektura-lanak...). Ikasleek taldeka azaldu behar dute zer esanahi ematen dioten artelan horietako bakoitzari, zer sentiarazten dieten eta, ikasleen ustez, zer adierazi nahi izan du artistak.

**Materiala:** 2.1. fitxa eta artelanen argazkiak edo laminak.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat.

**Iradokizuna:** Interesgarria izan daiteke Gernikako Bakearen Museora (Bizkaia) bisitaldi bat egitea, edo diapositiben bidez aztertzea hango obrak.



## 1.1. Fitxa

### Talde guztiak elkartzean egiteko galderak

- Tinta-orbanari buruzko interpretazio ezberdinik egin da taldean?
- Zuen iritziz, interpretazio batzuk besteak baino zuzenagoak dira?
- Norberak bere interpretazioa azaldu ondoren, "ikusi" du inork orbanean beste norbaitek "ikusi" duen gauza bera?

### Gure eguneroko bizimoduan, berriz...

- Gertakari baten interpretazio bera egiten du jende guztiak?
- Gertakari baten interpretazio ezberdinez mintzatzeak eragin dezake interpretazioan ados jartzea edo hura antzekoa izatea?
- Tirabirarik sortzen du interpretazio-ugaritasunak?
- Nola kontrolatuko zenituzke tirabirak?





## 2.1. Fitxa

### 1 Begiratu artelanak, gozatu haien edertasunaz; ondoren, taldeka eztabaidatu gai hauek:

- Zer ikusten duzue artelan bakoitzean?
- Zer mezu heltzen zaizue artelanen bidez? Zer adierazten dizuete?
- Zer sentitzen duzue?
- Zuen ustez, zer adierazi nahi izan du artistak?

### 2 Artelanak aztertu eta gero...

- Esanahi berbera izan du obra bakoitzak ikasle guztientzat? Zergatik?
- Zerbaiten interpretazio ezberdina egiten badugu, zergatik hartzen dugu hori gatazka-iturritzat eta ez sormenerako aukeratzat?
- *Arteak daukan alderdi interesgarriena ez da igorlearen mezua argi heltzea hartzaileari, baizik eta artelanak sortzen edo eragiten duena.*
- Bilatu eguneroko bizimoduan horren adibideak.



# *Hizkuntza eta literatura*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Enpatia sortzea etengabeko gatazka-giroan bizi direnekiko (haien larruan sartzea).
- Bakearen balioaz eta garrantziaz ohartzea.
- Komunikazioa eta elkarrizketa hobestea gatazkek konpontzeko eta maneiatzeko sistematzat.
- Sormen-estrategiak erabiltzea taldean eztabaida eta elkarrizketa antolatzeko.
- Zenbait estrategia edo teknika identifikatzea gatazkek maneiatzeko edo konpontzeko.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Ezagutzen dudan eta ez dudan lagun maitea<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Banaka irakurri behar dute “Ezagutzen dudan eta ez dudan lagun maitea” ipuina (ikus 1.1. fitxa). Ondoren, bosna edo seina laguneko taldeetan elkartu behar dute ikasleek, bakeaz eta herrien arteko elkartasunaz eta errespetuaz mintzatzeko eta hausnarketa egiteko. Jarduera amaitzeko, ikasle guztiek gutun bana idatzi behar diote gerran dagoen herrialde bateko norbaiti.

**Materiala:** 1.1. fitxa.

**Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat.

**Irudokizuna:** Euskal egoera ere mintzagai izan daiteke jarduera honetan (horretaz hausnarketa egin deza-tela, edo egoera honen biktima bati gutuna idatz diezaiotela).

### 2 Jarduera: Zure txanda da

**Deskribapena:** Eztabaidarako erabilgarri den esaldi-zerrenda bat eman ikasleei, haiei interesatzen zaien gairen bati buruzkoa. Esaldiak eurek egitea ere badago proposatzea (giza harremani buruzkoak, adibidez). Ikasle bakoitzari hiru babarrun edo garbantzua eman (esaldi bakoitzaz iritzia emateko dituen aukerak bezainbat). Hitz egiten duten bakoitzeko, ale bat eman behar diote ikasleek moderatzaileari. Esaldi bati buruzko eztabaida amaitzen denean, aleak jaso eta berdin egiten da gainerako esaldiekin. Moderatzaileak hitza eskatu duenari utzi behar dio hitz egiten; gainerako ikasleek, berriz, isilik entzun behar dute. Moderatzaileak ale bat kentzeko eskubidea dauka beste norbaiten solasaldia eteten duenari edo hizketako txanda errespetatzen ez duenari. Eztabaida amaitzean, kartel batean bildu behar dira ondorio guz-tiak. Ondoren, prozesu osoari buruzko hausnarketa egin behar da (ikus 2.1. fitxa).

**Materiala:** 2.1. fitxa.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: Dotras, L. (1997). *Cuentos para educar*. CSS: Madril.



## 1.1. Fitxa

### EZAGUTZEN DUDAN ETA EZ DUDAN LAGUN MAITEA

“Ergelkeria” iruditu zitzaidan irakasleak proposatu zuenean. Ohiko dituen burugabekeria horietako bat zela pentsatu nuen. Izan ere, nor besteri burura lekioke ikasleei eskatzea gutun bat idazteko gerran dagoen herrialderen bateko neska edo mutilen bati?

Egia esan, irakasle hau besteak ez bezalakoa da. Funtzionatu egiten dute haren burugabekeriek. Ez zaitu inoiz ikasgelatik kanporatzen, ez-egitekoren bat egiten baduzu ere. Ez zaizu ikaskide guztien aurrean oihuka hasten eta koloreak gorriarazten. Ez dugula zuzen jokatu esaten digu, ez besterik. Aitzitik, zerbait ongi egiten dugunean, esan egiten digu beti. Berritot: beti. Dena delakoa ongi egiten duten guztiei, gainera. Ohartuko zinetenez, guztiz atsegina zaigu irakasle horren jokabidea.

Agintzen dizkigun lanak, berriz, bitxi samarrak izaten dira. Beno, bitxiak ez dakit, baina besteak ez bezalakoak, bai. Kontua da lanak egin eta gero ohartzen garela merezi zuela haiek egitea, eta gauza-piloa ikasten dugula, gainera.

Halako batean, udaberria etortzeaz zela, urtaro horren zantzuak bilatzeko agindu zigun; baina ez bakarrik zelaietan, loreetan eta horrelakoetan (hori egitea zen denon asmoa), baizik eta gizon-emakumeetan, gure gorputzetan, etxean, eskolan, literaturan, artean, musikan... Beste egun batean ibai batera eraman gintuen eta gure zentzumenen bidez (ukimena, entzumenena...) jasotzen genituen sentsazio guztiak idazteko agindu zigun. A zer gauza-piloaz ohartu ginen, ordura arte batere kasurik egiten ez genien arren! Gainera, agindutako lanak egiten lagundu egiten digu, gu zuzentzen eta estutzen hasi beharrean. Egiten dena bakarrik ikasten dela, horixe esaten du beti.

Bada, lehentxeago nioenez (batzuetan hitz egin eta hitz egin jarduten naiz, batere konturatu gabe), banentorren halako batean ikastetxetik zera pentsatzen, “ergelkeria” galanta zela gutuna idazteko kontu hori. Oharkabea, nahi gabe, lurrean zegoen Coca-Cola pote bat jo nuen ostikoz. Potearen klik-hotsak izpi bat piztu zuen nire baitan. Bat-batean,

zure aurpegia ikusi nuen, zurekin topo egin nuen. “Berritot ere lortu egin du irakasleak”, pentsatu nuen. Telebistan ikusi zintudan, orain egun batzuk. Hainbeste gerra-film ikustearen poderioz, ordea, kasurik ez diegu egiten egiazko irudiei.

Oinez zindoazen. Norantz ote? Seguru aski, ez zeuk ez bizkarrean zeneraman anaiak ez zenekiten nora zindoazten. Nik, berriz, liburuz betetako motxila neraman bizkarrean. Sekulakoak esaten ditut, askotan, motxila dela-eta, pisu handia baitu. Baina klik-hots hark ahantzarazi egin zidan bizkarrean neraman zama. Ba ote nuen nik kezaka ibiltzeko eskubiderik? Nonbait irakurria naiz mina bat zapaltzen dutenek betiko izaten dutela gogoan zapaltze-soinua eta haren aurreko bi segundoak.

Aurkitu egin zintudan. Zure larruan sartzea erabaki nuen, nola bizi zaren eta bizitzeko gai zaren ulertzeko asmoz.

Bakarrik zaudela jakin nuen. Bizi dira zure gurasaak? Baietz sinetsi nahi nuke. Baina etxean zer aurkituko duzun (edo ez duzun) ez dakizula itzultzen zara egunero etxera; hala iruditzen zait, behintzat, niri. Hori, jakina, eskola batera joateko zortetik baduzu, eta bonbardaketek ez badute desegiten. Eta zure etxea? Ba ote duzu etxerik?

Sentitu egin nuen zure inkomunikazioa, telebistan jendea harat-honat ikusten bazen ere. Zergatik, ordea, heltzen da nigana zuen isolamendua, zenbait lagun elkarrekin ikusten ditudan arren? Zergatik komunikatzen duzue zuen mina, denok min berdina izanik?

Eta beldurra? Orduan, hotzikara bat nabaritu nuen eta bihotzaren taupadak izugarri azkartu zitzaizkidan. Izua. Izurarekin bizi zara egunero, baina bizi egiten zara. Beldurrak beldur, eguna argitu zain egoten zara egunero.

Gosea, egarria, hotza, hildakoak, armak, bonben hotsa, euliak, zikinkeria nonahi, gaixotasunak, usaina...? Eta etsaia deritzon hori?



Halako batean, Boris izeneko mutil baten istorioa irakurri nuen liburu batean. Etsaiaren fronte-lerroaren bestaldera jo zuen Borisek, Nadia izeneko lagun batekin, goseak zegoen eta. Jaten eman zieten etsaiek. Zergatik ote gara hain konplexuak? Bigarren Mundu Gerran gertatu zen hori. Historiako klasean, gerrak ikasten ematen dugu denbora. Denok denekin haserre gabiltza beti, edozein arazoirengatik. Ez dut ulertzen zergatik ez dugun ikasi oraindik gerrarik gabe bizitzen. Ez ote dira konturatu oraindik horrekin ez dela ezer lortzen?

Bakeaz hitz egitea izugarri maite dute, noski. Milaka bake-hitzarmen daude, baina ez dituzte barrenbarrenean sentituko, etengabe hausten baitituzte. Bake-ikur asko daude: usoa, indiarren bake-pipa, elkarri eskua ematea... Ereserkiak, orotarriak, kantuak, elkarte bakezaleek bultzatutako kontzentrazio jendetsuak... horiek guztiak ere hor daude. Baina, nire ustez, gure amak guri esaten diguna gertatzen da: "Seme, nik esandakoa aditu egiten duzu, baina batere kasurik ez!". Izan ere, ez du ezertarako balio nik uso bat marraztea, baldin eta "hau konpondu beharra dago, orain eta honela" tinko erabakitzen ez badugu.

Eta, finean, badakizu: "dirua eduki ezazu; berdin dio zurea edo besterena den". Gure lagun batek esan ohi du hori; gauzak azaltzeko erraztasun handia du. Esan nahi dut azken batean beti arrazoi berberengatik haserretzen direla: "Hori nirea da". "Nik zuk baino gehiago ahal dut". "Zuk daukazun hori niretzat nahi dut". Eta denek ekiten diote gauzak edukitzeari edo nola eduki pentsatzeari, eta ahaztu egiten dituzte gizakiak. Gure aitak esan ohi du bi lagunek ez dutela elkarrekin borroka egiten batek egin nahi ez badu. Esaten du, baita ere, eskuzabaltasun handia behar dela anai-arreben artean liskarrik ez egoteko.

Kalean nenbilela eta Coca-Colarena gertatu zitzaizdanean, hemengo gorabeheren berri emanez zuri idaztea pentsatu nuen, zu pixka bat entretenitzearren. Ez nintzen horretarako gauza izan. Ez dakit zer dela-eta hasi naizen idazten zuk sentitzen bide

duzun horretaz. Zuk, ordea, ongi dakizula iruditzen zait. Lagun artean senti zaitezten egin dudala uste dut. Gure lagunak (diruaren esaldi hori dioenak) lagundu egiten dit huskeriaren bategatik gaizki sentitzen naizenean (nireak bai huskeriak, izan ere). Horrela nagoenean, badakiela nola sentitzen naizen esaten dit. Nire huskeriak ez dira jada hain huskeria izaten. Bidelagun izan behar du beti adiskideak. Nik zure bidelagun izan nahi nuke, oraingoz eskaini diezazukedan bakarra solasalditxo hau baino ez izan arren.

Beste zera honegatik ere iruditzen zitzaidan "ergelkeria" zuri idaztea: zuk nire gutuna irakurtzerik izango ez duzulako. Hizkuntza ezberdinetan mintzo gara. Gero gogoratu nintzen zenbat jende aritzen den gerran dauden herrietako gizon-emakumeei laguntzen, jasan behar izaten dituzuen izugarrikeriak apur bat arintzearen. Jende horren artean nire herriko asko daude. Horietakoren batek itzul diezazuke gutuna.

Hemen, ikastetxean, askotan esaten digute gazteok garela etorkizuneko itzaropena. Itzaropena dugu, hain justu, bizitzera bultzatzen gaituena. Bestela, nola biziko zinatekete zuek? Espero dut ("esperantz" hitzetik dator hori ere) esan dudana guk inoiz ez ahaztea eta gure mundu honetarako benetako konponbideak bilatzen saiatzea. Mundu hau, izan ere, denona da, askok horretaz ohartu nahi ez badute ere.

Gure irakaslearen "ergelkeria" primerako ideia izan da, finean.

Ideiak bi eratakoak izaten dira: "ergelkeriak" eta "primerako ideiak". "Primerakoak" oso ona esan nahi du gurean. Badaezpada esaten dizut, zuenean beharbada beste era batera esango da eta. Hitzak, izan ere, sortu eta desagertu egiten dira. Nahiago nuke beste zenbait gauza horren erraz desagertuko balira! Edo sortuko balira! Primerakoa litzateke!

Laster arte, lagun. Noizbait, agian, zu besarkatzeko aukera izango dut.



### Taldean eztabaidatzeko

1. Zer iruditu zaizue irakurgaia?
2. Zer sentitu duzue gutuna irakurtzen zenuten bitartean?
3. Munduko zenbat herrialdetan dago gerrarik gaur egun?  
Irudika ezazue zuen bizimodua gerran dagoen herrialde batean biziko bazinete.
4. Zuen iritziz, zer da bakea?
5. Zer balio lotzen dituzue hitz horrekin?
6. Zer esango zenioke gerran dagoen herrialde bateko pertsona bati? Nola hitz egingo zenuke pertsona horrekin? Idatzi gutun bat pertsona horri.

## 2.1. Fitxa

### Taldeko hausnarketa eztabaidaren ondoren

- Zer abantaila ditu elkarrizketa-era honek?
- Laguntzen du elkarrizketa-mota honek gatazkak konpontzen?
- Zer beste teknika edo estrategia dira lagungarri horretarako?
- Zer ezaugarri izan behar ditu gatazka bateko aldeen arteko komunikazioak hura konpontzen laguntzeko?
- Ezagutzen duzue beste metodologiarik (bitartekaritza, negoziazioa...) gatazkak gainditzeko?
- Zer dakizue metodologia horietaz?
- Zein da, zuen ustez, egokiena? Zergatik?



# Ingelesa



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Benetako gatazkak aztertzea eta ikertzea; arazoa identifikatzea, baita haren eragileak eta partaideak ere.
- Gatazkak konpontzeko baliagarri izan daitezkeen bideei buruz eztabaidatzea eta hitz egitea.
- Ingeleseko kantuak ikastea eta haien mezuak aztertzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Identify the conflict

**Deskribapena:** Gaur egungo zenbait gatazka global nahiz lokali buruzko azterketa egin behar dute ikasleek, helburu honekin: gatazka, haren jatorria, hartan parte-hartzaile direnak eta balizko konponbideak identifikatzea.

**Materiala:** 1.1. fitxa.

**Dinamika:** Taldekakoa. **Denbora:** 30 minutu.

### 2 Jarduera: The Irish problem

**Deskribapena:** Irlandako gatazkari buruzko ikerketa egin behar dute ikasleek. Horretarako:

1. Gatazka identifikatu egin behar dute, lehendik dituzten ezaupideez baliatuta.
2. Sakontasun handiagoz ekin behar diote gaiari; informazioa bilatu behar dute horretarako.
3. Taldetan banatu ikasleak; talde bakoitzak ikuspuntu baten alde egin behar du.
4. Moderatzaile bat izendatu behar da. Gatazka gainditzeko konponbideak proposatu behar dira eztabaidan.

**Materiala:** 2.1. fitxa eta Internet.

**Dinamika:** Taldekakoa. **Denbora:** 50 minutuko saio bat.

**Iradokizuna:** Euskal egoerarekin pareka dezakete.

### 3 Jarduera: Gap filling

**Deskribapena:** Gai sozialak (immigrazioa, goseteak, gerra...) erabiltzen dituzten kantariei eta musikari buruz hitz egin ikasgelan. Ondoren, U2 taldearen abesti bat entzun, kantaren mezua aztertzeko.

**Materiala:** 3.1. fitxa eta abestia.

**Dinamika:** Taldekakoa. **Denbora:** 30 minutu.





## 1.1. Fitxa

Let's think of the most important conflicts in progress nowadays in your country and around the world.

Think local! Steps.

- a) Identify the conflict.
- b) Analyse its nature (race, economic, religious...).
- c) Parties involved.
- d) Length of the conflict so far.
- e) Suggestions for a prompt solution.

Think global! Steps.

- a) Identify the conflict.
- b) Analyse its nature.
- c) Parties involved.
- d) Length of the conflict so far.
- e) Suggestions for a prompt solution.

## 2.1. Fitxa

Sometimes we do not have enough information about a concrete situation. This makes us think in a wrong way about those realities we don't know. For example let's talk about the Irish problem.

**1st step.**

- Who in class has ever heard about it?
- Who can explain the problem?

**2nd step.**

Investigate: collect information, possibilities, download information from the Internet.

**3rd step.**

- Understand the position or opinion of each party.
- Divide the class in two sides. Each one will have to defend a point of view.

**4th step.**

- Reach an agreement.
- Name a referee or a mediator, somebody both parties can trust.
- Each side must present a proposal, including what things you are likely to accept or not.
- You have to debate about the points both proposals agree and disagree on.
- Write a final agreement to solve the conflict.



## 3.1. Fitxa

Music is a good instrument to make people aware of conflicts and make society think about them.

### 1st step.

What bands or singers do you think that are social concerned? What are they worried about? (Immigration, hunger, wars, environmental issues...).

### 3rd step.

Gap filling. U2 and Bono have written many good songs, some of which complain about the Irish conflict. This is one their most famous ones.

### 2nd step.

Do you admire any particular band for the messages of their songs?. If not, what are the things you admire a band for?

### Sunday Bloody Sunday

I can't believe the news today  
Oh, I can't close my eyes and make it go away  
How long...  
How long must we sing this song?  
How long? How long...  
  
'cause tonight...we can be as one  
Tonight...  
  
Broken bottles under children's feet  
Bodies strewn across the dead end street  
But I won't heed the battle call  
It puts my back up  
Puts my back up against the wall  
  
Sunday, Bloody Sunday  
Sunday, Bloody Sunday  
Sunday, Bloody Sunday (Sunday, Bloody Sunday...)  
(allright lets go!)

And the battle's just begun  
There's many lost, but tell me who has won  
The trench is dug within our hearts  
And mothers, children, brothers, sisters torn apart  
  
Sunday, Bloody Sunday  
Sunday, Bloody Sunday  
  
How long...  
How long must we sing this song?  
How long? How long...

'cause tonight...we can be as one  
Tonight...  
Tonight...  
Sunday, Bloody Sunday (tonight)  
tonight  
Sunday, Bloody Sunday (tonight)  
(come get some!)  
  
Wipe the tears from your eyes  
Wipe your tears away  
Wipe your tears away  
I wipe your tears away  
(Sunday, Bloody Sunday)  
I wipe your blood shot eyes  
(Sunday, Bloody Sunday)  
  
Sunday, Bloody Sunday (Sunday, Bloody Sunday)  
Sunday, Bloody Sunday (Sunday, Bloody Sunday)  
(here I come!)

And it's true we are immune  
When fact is fiction and TV reality  
And today the millions cry  
We eat and drink while tomorrow they die  
  
The real battle yet begun (Sunday, Bloody Sunday)  
To claim the victory Jesus won (Sunday, Bloody Sunday)  
On...  
  
Sunday, Bloody Sunday  
Sunday, Bloody Sunday...



# Gizarte-zientziak



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Munduko geografiaz eta historiaz ezaguera izatea.
- Estatuak izan dituzten eta dituzten gatazken berri izatea.
- Zenbait informazio-iturri erabiltzea.
- Israelen eta Palestinaren arteko gatazka hobeto ezagutzea.
- Lurralde jakin bateko gertakariak eta prozesuak kokatzen jakitea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Juduak eta palestinarrak

**Deskribapena:** Taldekako ikerlana egitea proposatzen da. Ikerketaren helburua da juduen ibilbide historikoa aztertzea. Hainbat iturritatik jasotako informaziotik eskuratu behar dituzte datu aipagarrienak. Ondoren, judu edo arabiar jatorriko pertsona zein erakunderen batekin (edo gai horren inguruan diharduen batekin) harremanetan jarri behar dute ikasleek eta elkarrizketa egin behar diote. Zer dela-eta iritsi ziren egungo egoerara, zer sentitzen duten, zer arazo dituzten, zer deritzoten juduen eta palestinarren arteko gatazkari... galdetu behar diete elkarrizketatuei.

Idatzizko lana egin behar du talde bakoitzak. Hor, ikerketan jasotako datu guztiak bildu behar dituzte, eta ahalik eta era erakargarrienean aurkeztu behar diete lana ikaskideei. Horretarako, filmak, bideoak, argazkiak, soziodramak, posterrak eta abar erabil ditzakete.

Talde guztiak lanak aurkeztu dituztenean, hausnarketa egin behar da, 1.1. fitxako galderak oinarri hartuta.

**Materiala:** Dokumentazio-iturriak: bibliografia, Internet eta 1.1. fitxa.



**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko bi saio ikerketarako; behar adina saio lanak ikasgelan aurkezteko.

**Iradokizunak:** Oso interesgarria izan liteke, bestalde, judu eta palestinar bana gonbidatzea, bakoitzak bere herriaren historiaz hitz egin dezan ikasgelan.

Gaiari sakontasun handiagoz ekiteko eta jarduera osatzeko, beste honako hau ere proposatzen dugu: ALBOANek eta Jorge Urdanozek batxilergorako eginiko filosofiako unitate didaktikoa (Giza haremanek, botere - haremanak? Mensajero argit.). Juduen eta palestinarren arteko gatazka aztertzen du liburuak, baita bake-plan bat proposatzen ere.

Ondoren, euskal auziaz ere badago hausnarketa egitea, baita jarduera honetan jorratutakoak gure herriko egoerarako ematen dizkigun ideiak lantzea ere.

## 2 Jarduera: Gatazka armatuen mapa<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Proposatu ikasleei Berlingo Harresia eroriz geroztiko munduko gatazka armatu nagusien mapa egitea. Gatazkek eragindako herrialde bakoitzaren ezaugarriak (fisikoak, sozialak...) azaldu behar dituzte ikasleek, krisi horien nondik norakoak hobeto ulertzeko. Proposatu, azkenik, bakearen lorpenak erakusten dituen mapa bat egitea ikasle guztien artean.

**Materiala:** 2.1. fitxa eta zenbait dokumentu:

Aldizkako argitalpenak:

- NBGP (Nazio Batuen Garapen Programa).
- ACNURen (Errefuxiatuentzako Nazio Batuen Goi Komisarioa) bi urtean behingo argitalpena.
- Amnesty Internationalen urtekaria.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: Sáez, P. (2002). *Guerra y Paz en el comienzo del siglo XXI*. CIP: Madril.



- *Munduaren egoera* argitalpena. Munduaren egoera ekonomikoari eta geopolitikoari buruzko urtekaria.
- Bakerako Ikerketa Zentroaren (CIP) urtekaria.

Gaikako atlasak:

- *Atlas del estado de la guerra y la paz*. Akal, Madril, 1999.
- *Atlas del estado del mundo*. Akal, Madril, 1999.
- *Atlas del estado de la mujer*. Akal, Madril, 2001.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko hiru saio.

**Iradokizuna:** Mapa Peters-en proiektzioan egitea gomendatzen dugu.

## 1.1. Fitxa

### Hausnarketa egiteko galdera batzuk

- Zer sentitu duzue lanak egiten ari zinetela?
- Zergatik jasan dute juduek horrenbesteko jazarpena historian zehar?
- Zer dute bereizgarri juduek? Zertan dira besteen pareko? Eta palestinarrak?
- Zer ekarpen aipagarri egin dizkiote judu jatorriko gizon-emakumeek gizateriari?
- Zuen ustez, badago arrazoi onargarririk giza talde bat jazartzeko irizpide etniko, erlijioso, sexual, ideologiko edo beste zeinahirengatik?
- Zer egin genezake hainbat giza talderen segregazioa eta bidegabeko tratua eragozteko?
- Balio digute ezertarako proposamen hauek gure eguneroko bizimoduan?



## 2.1. Fitxa

- 1 Berlingo Harresia eroriz geroztiko munduko gatazken mapa egin behar dugu, taldeka. Petersen proiektioa erabiliko dugu mapa irudikatzen. Aipatu denbora-epean sortu diren gatazka mapan jarri behar ditugu.
- 2 Aukeratu, denon artean, gutxienik bost urte iraun duen gatazka armatu bat.
  - Zergatik iraun du horrenbeste?
  - Horren zergatia jakiteko, azter ditzagun honako faktore hauek:
    - Energia-baliabideen eta mineralen banaketa.
    - Erregimen politikoak.
    - Ingurumen-arazoak.
    - Gorabehera geografiko aipagarrienak.
- 3 Gatazka armatuen beste bertsio batzuk begiratu gero, berriz, hainbat diferentzia antzemango ditugu. Mapa batzuen arabera, gerra dago halako herrialde batean, baina beste mapa batzuek aipatu ere ez dute egiten gerra hori. Zergatik gertatzen da hori? Bazekien horrenbeste gatazka armatu zegoela munduan? Zergatik ez dago gatazka horietako batzuen batere berririk?
- 4 Munduko maparen irakurketa orokorra egingo dugu jarraian. Gatazken jatorria ulertzeko arrazoiak aztertu; era berean, haiek desaktibatzen edo, are hobeto, prebenitzeko bitartekoak asmatu.
- 5 Egin, denon artean, bakearen mapa bat. Ipini mapa horretan bakearen lorpenak, baina ez soilik gerrarik ezarenak, baizik eta indar armaturik gabeko gatazketan ere gauzatzen diren zenbait ekimenenak: mugimendu sozialak, Giza Eskubideei buruzko nazioarteko konferentziak, jardura diplomatikoak...



# Musika



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN



## Helburuak

- Musika-entzunaldi aktibo bat egitea: letra eta melodia.
- Musika-lanak ulertzeko hainbat baliabide erabiltzea: ahozkoak, instrumentalak.
- Musikak bake-mezuak transmititzeko duen gaitasunaz jabetzea.
- Taldean interpretatzeko arauak onartzea eta betetzea.
- Taldean interesarekin eta gustura parte hartzea, musika-ideiak ematea eta guztion eginkizuna hobetzen laguntzea.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Gora beherak

**Deskribapena:** Betagarri-en “Gora beherak” abestia entzun klasean (ikusi 1.1. fitxa). Gero, letra aztertuz, abestian azaltzen diren ideiak ateratzeko eztabaidatu behar da taldeka. Ondoren, berriz jarri behar da abestia, melodiari arreta ipiniz, letraren mezua musikak nola indartzen duen ohar-tzeko. Azkenik, frankotiratzailearen kontakizuna irakurri (ikusi 1.2. fitxa) eta fitxan azaltzen diren galderen inguruan eztabaidatu behar da.

**Materiala:** Abestia eta 1.1. eta 1.2. fitxak.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko saio bat.



## 2 Jarduera: Ibiltarien musika<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Sei pertsonako taldeak egin behar dira abesti bat asmatzeko –musika eta letra–. Abestiak *gatazkak konpontzeko urrats gisa pertsonen arteko errespetuaren beharra* adierazi behar du. Abestiaren unean uneko erritmoei arreta jartzea eskatuko zaie –melodiari, egiturari, tinbreari...–; horrekin batera, letra ez ezik eduki espresiboa ere eman behar diote kantuari, musikaren bidez.

Kantak prest dituztenean, ikaskideei aurkeztu behar dizkiete talde guztiek. Horretarako, talde bakoitzak papelografo batean idatzi behar du abestia. Taldeak kantatuko du lehenik abestia eta, gero, gainerako ikaskideak ere kantatzera animatu behar dira.

Abesti guztiak entzun ondoren, eztabaidatu egin behar da, horietan azaltzen diren oinarrizko ideiak erauzteko. Azkenik, ateratako ideiekin ikasgelan gatazkak konpontzeari eta errespetuari buruzko dekalogoia egin behar dute.

**Materiala:** Papergrafoa eta behar diren musika-tresnak.

**Dinamika:** Taldekakoa.

**Denbora:** 50 minutuko bi saio.

**Iradokizuna:** Ondo legoke taldeek jolas-orduetan kantatzea abestiak, ikaskide guztiek entzun ditzaten, musikari ibiltarien gisara.



<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: IPEDEHP. *Aprendiendo a dar respuestas democráticas y solidarias a los conflictos en la escuela*. IPEDEHP: Lima (Peru).



## 1.1. Fitxa

### GORA BEHERAK

Zure begiak irekitzean  
Iluntasuna nagusi bada  
Entzun itzazu zeure taupadak  
Hor jarraitzen dute eta

Gaua beltzago bihurtzean  
Ailegatzeaz da egunsentia  
Begi itxiek ikusten dute  
Barneko argitasuna

Askotan gauzak izaten dira  
Nahi genuenaren kontrakoa  
Zaila dirudi baina ez da erreza  
Egin ezazu aurrera

Aurrera aurrera oohh!  
Bizitzarekin  
Aurre egin aurre egin oohh!  
Arriskatu!

Gora beherak izaten dira  
Zure esku dago aurreratzea  
Gora beherak izaten dira  
Ez zaitetz galdu ibilbidean  
Ez zara bakarria ibilbidean

Betagarri  
Freaky Festa. 2000.



## 1.2. Fitxa

### FRANKOTIRATZAILEA

Ez nuke sekula pentsatuko infernu honetatik irten eta, biolontxelo eskuan zuela, Europa erdia igarota famatu egingo zenik. Egia esan, duela bi aste baino gutxiago izan nuen nire fusil automatikoaren miran.

Lehendik ere banuen haren berri, Sarajevon berriak ahoz aho zabaltzen eta frankotiratzaileak egon ohi garen teilatuetaraino iristen baitira.

Serbiakoa naiz; musulmanak Bosniatik irten daitezzen ari gara borrokan, garai batean izandako nazio handia izan nahi baitugu berriz. Gerra hasi zenetik, hainbeste izugarrikeria ikusi dut... Jada ez dit ezerk zirrarak sortzen. Ezta nire teilatutik musulman bat zutik, lasai, kalean ikusteak ere, bai baitakit zenbait segundoren buruan Sarajevoko negu hotzeko zorura blaust eroriko dela, sekula ez altxatzeko, nire hatzak fusilaren katua zehaztasun leunez sakatu bezain laster.

Oso ondo gogoratzen dut, harrigarria baita –bai orain, bai gerra hasi aurretik ere– eskuetan aulki bat daraman gizonezko bat kalean zehar poliki-poliki aurrera egiten duela eta... aulkia leuntasunez ipintzen duela ikustea, aurrez pentsatuta eta barrenbarrenetik sentituko balu bezala. Une batez, aulkia hutsik geratu zen... Gero, patxada berberaz, etxean sartu zen berriro eta biolontxelo eta arkua hartuta irten zen. Eseri egin zen. Begiak bildu eta hainbat

nota aske jo zituen, musika tresna doitzen arituko balitz bezala.

Begira geratu zitzaizkion gutxi batzuk espaloitik, ezaguna egiten zitzaidan musika baten lehen konpasak jotzen hasi bezain laster... Ez nuen berriro pentsatu: alboan, teilatuaren zoruan, nuen fusila hartu, ertza sorbaldan bermatu eta apuntatu egin nion; horrelaxe egon nintzen hainbat segundotan. Posizioa ezin hobea zen.

Tiro egitera nindoala, zertxobait altxatu zuen soa eta ikusi egin ninduen. Atzera egiteko keinua egin nuen. Jakina, itua izutu egin nuen. Segur aski kontzertu inprobisatua amaitutzat jo eta dar-dar batean, beldurrak jota, ihesean joango zen.

Musika ez zen eten, ordea.

Argi eta garbi entzuten segitzen nuen nire ezkutalekutik... Eta, gainera, indar handiagoz entzuten zela iruditu zitzaidan.

Kontu handiz, berriz kalera begiratu nuenean, hantxe segitzen zuen, ni nengoen lekura begira, desfioz, beldur itxurarik gabe.

Gizon horrek erotuta egon behar zuela edota oso ausarta izan behar zuela pentsatu nuen, edozein lurraldetan bizitzea merezi zuela. Eta, besterik gabe, kalera jaitsi eta hari begira zegoen jendearen artean murgildu nintzen. Musika hori heriotzez eta



gorrotoz aspertuta zeuden begiek ikus zezaketen paisaiarik ederrena balitz bezala begiratzen zioten. Biolontxeloia jotzen zuen gizona etengabe aritu zen ni egon ohi naizen lekura begira.

Amaitu zuenean, jendeak zoriondu egin zuen... Ni aldendu egin nintzen handik... errepide-ertzetan metatutako elur zikina zapalduz.

Bat-batean, oinez nindoala, biolontxelodun gizonak jo berri zuen abestia txistuka ari nintzela konturatu nintzen, eta arima nekatuta sentitu nuen.

La noticia. 1994ko urtarrilaren 25eko  
*El País* (asteartea).

#### Irakurri ondoren hausnartzeko...

- Zer esan nahi digu kontakizunak?
- Zer sentimendu sorrazten dizu?
- Zertarako balio du musikak?
- Bakea lortzeko, zer beste bitarteko bururatzen zaizue musikaz gain?



# *Erljioa*



MUNDUKO  
HIRITARROK



ALBOAN

## Helburuak

- Biblian ageri diren zenbait gatazka aztertzea, haien faktore guztiak kontuan hartuta.
- Ebanjelioan ageri diren zenbait gatazka gaur egungo gure inguruko hainbat egoerarekin alderatzea eta horiei buruz lan egitea.
- Sormena erabiltzea gatazkei konponbideak bilatzeko.

## Jarduerak

### 1 Jarduera: Jesusen bizitzako gatazkak<sup>1</sup>

**Deskribapena:** Ebanjelioko zenbait testu irakurri ondoren, horietan ageri diren gatazkak aztertzeko agindu ikasleei. Hona kontuan hartu behar dituzten faktoreak: protagonistak, arazoak, prozesua, balioak eta sentimenduak.

**Materiala:** 1.1. fitxa eta Biblia.

**Dinamika:** Banakakoa eta taldekakoa. **Denbora:** 50 minutuko saio bat.

### 2 Jarduera: Gatazkak Elizaren hastapenetan

**Deskribapena:** Boluntarioak eskatu Eginak 15, 1-35en testua antzezteko. Ikasle bakoitzak rol bat izango du: Paulo, Bernabe, Santiago, 1. apostolua, 2. apostolua, 1. fariseu sinestuna eta 2. fariseu sinestuna. Antzeztu (zuen iritziz egina gertatu bide zen antzera), testuak proposatzen duen akabera kontuan izan gabe. Ondoren, bi taldetan banatu ikasleak, leudekeen konponbideei buruz eztabaidatzeko. Azkenik, antzeztu konponbide guztiak eta 2.1. fitxa landu.

**Materiala:** 2.1. fitxa eta Biblia.

**Dinamika:** Taldekakoa. **Denbora:** 50 minutuko saio bat.

<sup>1</sup> Honako honetatik egokitua: Programa por la paz (2001). *Desarrollo de habilidades para la construcci3n de la pa*. KIMPRES: Bogota (Kolonbia).



## 1.1. Fitxa

### 1 Bilatu testu hauek eta arretaz irakurri:

- Seme iriolea – Lc 15, 11-32
- Jesus tenpluan - Mt 21, 12-17
- Mahastiko jornalariak – Mt 20, 1-16
- Galburuak larunbatean bildu – Mt 12, 1-13
- Marta eta Maria – Lc 10, 38-41
- Fariseu hipokritak – Lc 11, 37-54

### 2 Identifikatu horietako bakoitzean:

- Protagonistak
- Arazoa/k
- Prozesua
- Balioak
- Sentimenduak

### 3 Taldean hausnartzeko:

- Zein dira protagonista nagusiak? Zeinekin identifikatzen zarete?
- Zer botere-harreman daude tartean?
- Nola gaindi daiteke sortutako oinazea?
- Gatazka haietan identifikatutako gatazketatik, zein daude indarrean gaur egun?
- Zer iradokitzen dizue antzezlanak zuen eguneroko bizimodurako?

## 2.1. Fitxa

### Pentsatzeko...

- Kristau-komunitatearen barruko eta haren kanpoko zer faktorek bultzatu zuten gatazkaren tratamendua eta konponbidea?
- Zeren beldur dira istorioaren protagonistak?
- Zer beste konponbide bururatzen zaizkizue?



Erljioa • DBH Bigarren ziklo